

PEILLEN KARRIKABURU, Txomin.

Agur Zuberoa

Biba Xiberua! elkarteak, Urretxu-Zumarraga. Itxaropena, S.A. Zaurutz, 2001, 62 orrialde.

Juan SAN MARTIN

Euskal Herriaren hegoaldekook Zuberoa eta bertako euskaltzaileak hobeto ezagutzeko lan bikaina eskaintzen digu Txomin Peillenek liburu honen bidez.

Sarreratzat Koldo Goitiaren hitzaurrea dakar: "Txomin Peillen: jakintsu alegera" izenburuz.

Bere lehen kapituluan dakar: Historia laburra, Zuberoaren etsaiak eta adiskideak, bearnes jendeekin harreman onak. Beste auzoak: manexak, nafarrak eta zuberotarrek beren buruan nola ikusten dituzten.

- Bigarrenean : Zuberoako alderriak, Basabürüra eta Petiarra.
- Hirugarrenean: Hizkuntza eta jendea, zuberera.
- Laugarrenean : Zuberoaren ekarpena kulturari, zubererazko literaturak XV. mendeko eresi zaharrak eta txikitoak, XVI. mendeko esaera zaharrak, XVII. mendea, XVIII. mendea, XIX. mendea eta XX. mendea. Non sartzen dituen Jon Mirande, Junes Casenave eta Jean Luis Davant, beraien ekintza eta idazlanez.
- Bosgarrenean: Guzti horren jarraipenez, zuberotar eta euskaldun noliz arte.

Eta, bukatzeko, Bibliografia.

Ingurua ezagutarazko, hasieran, hor ditugu Zuberoaren historia eta geografiaren zati laburrak. Ondotik bertako hizkuntzaz eta literaturaz jarraltzeko.

Liburu atsegina benetan, bertako pastoralak eta kantorea (kanta) alpagarriak ezagutzeko. Besteak beste, niri aspalditik zitzaidan atsegin jauntxoaren borroka buruz 1445ean agertu zen "Bereterretxeren kantorea", liburu honen 34-35. orrialdeetan datorrena, batez ere hitz jokoez ballaturik eskaintzen dituen sinbologiengatik. Adibidez, era honetara hasten delarik:

Haltzak ez dū bihotzik
 Ez gaztanberak ezürrik
 Ez nūan uste erraiten zūela Aitonen semeek bezürrik.

Eta bere zazpigarren bertsoan beste honako hau duelarik:

Andozeko Ibarra
 Ala Ibar lūzea
 Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Txominek bere liburu bikain hau euskara batuan ematen du, balna tartekatzen dituen bertako testuak zuberotarrez daudenez, hizkuntzaren batasuna eta premia hobekiago ezagutzeko lagungarri zaigu. Hortik ikusten baita euskalkietarik ere zerbait ikasi beharra dugula hizkuntza batasunaren alderako. Egiategi, Olhenart, Etxahun Barkoxekoa eta beste zenbait idazleren berriak eta lan zatiak hor datoz, guztiontzat hain ezagutu beharrezkotzat ditugunak.

Aldi berean, egileak bere kezka azaltzen dizkigu hizkuntzaren etorkizunaz. Eta zuberorren esaldiz dio:

Atzo hala
 Egūn hola
 Gero etxalkin nola.

Zalantzarik gabe, bai han eta bai hemen, lan egin beharra dugu euskararen alde, zeren, hizkuntzarik gabe, ez dugu egiazko aberririk.

Egoaldekoak, bereziki Bizkaikoak, lasai hartu beharrezko irakurgala dugu, eta ziur nago bere irakurketaz inork ez duela damurik izango.